

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a / 407. zenbakia


2005

urte berri begiratu

Ze barri?
19. orrialdean
Urlatik
28. orrialdean

ARETXABALETA

*Gabonak Zoriontsu eta bakean pasa ditzagun.
Urte Berri On !!*



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Zorionak eta
urte berri on!


Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61



AZKARATE
aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia



parket flotatzailea

- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



URTARRILA



"Europari baietz esanez gero, ba ote dakigu zeri ematen diogun oniritzia?"

JON MOLINA / ABADEA
2005-01-14



"Mailari eustea da gure helburua, baina iaz baino hobeto ibilita"

AITOR ALCAIDE / XAKE JOKALARIA
2005-01-21

HILEKO ESALDIA

"Espainiako Estatuak lege propioak bere interesen arabera aldatzea ez da berria"

PERU URALDE / ASKATASUNEKO KIDEA
2005-01-24

HILEKODATUA

209

LAN XVI. LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETAN

Loramendi EEK antolatutako literatura lehiaketan Lehen Hez-kuntza eta DBHko ikasleek 209 lan aurkeztu zituzten. /2005-01-21



Zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua onartu zuen Udalak

Urte hasieran onartu zuen udalbatzak 2005eko udal aurrekontua; aho batez onartu ere. Iazkoaren aldean %19ko igoera izan zuen, eta inbertsioei dagokienez %41eko igoera. Diru partidarik handiena kultura ekipamendurako izan zen: 700 mila euro. Otorora kaleko saneamendu lanak egiteko 610 mila euro gorde zituzten eta Arkarazoko errepidea konpontzeko 270 mila euro. /2005-01-28


MARKESINA JARRI ZIOTEN AUTOBUS GELTOKIARI

↑ Azbe lantegi parean dagoen autobus geltokiari markesina jarri zioten autobusen ordutegi eta guzti. /2005-01-21

ARALAR-ZARAIA KALEETAKO LANAK EZIN BUKATU

↓ Aralar eta Zariaia kale inguruetan egindako saneamendu lanak ondo bukatu barik utzi zituzten langileek. /2005-01-21

AIPAGARRI



JOKIN ANTIXIA
UDAKo presidentea

Ezohiko osoko bilkura egin zuen UDAK eta estatutuak aldatu zituen beste hiru kirol modalitate sar-tzeko elkartean: karate, xakea eta areto futbola. /2005-01-14



SALVA RODRIGUEZ
Tabernari eta aktorea

Tabernaria izan arren Hitlerren pape-ra egin zuen ETBk egindako dokumental baten. Donostian eta Azepeitian egin zituen grabaketa lanak. /2005-01-14



MYRIAM BELTRAN DE H.
Prebentzio teknikaria

Lelo berriarekin onartu zuen Udalak 2008. urte arteko droga-mendekotasun plana: drogak neurritz eta nor bere burua-ren jabe izanda konsumitu. /2005-01-14

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 71 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com



ZUZENDARIA
Mirari Altube
ERREDAKZIOA
Mirari Altube
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate
LEGE-GORDAILUA
55200/99
ISSN
1134-2609
TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA
Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Aretxabaletako Udala



Eusko Jauriaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia

Opel Zafira berria.
Malgutasuna inoiz baino dibertigarriagoa.



Opel Vectra gama berria.
Izaera bereizgarriak.
Diseinu berri eta dinamikoa.



Zorionak eta urte berri on!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1 - 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

OTSAILA



"Tranbiaren proiektua bozketak gertu daudenean berpiztea kasualitatea da?"

ANJEL BERGARETXE / ALKATE OHIA

2005-02-25



"Bertsolaritzak konektatu egiten du gazteekin eta gura dutena esan dezakete"

XABIER ORMAETXEA / BERTSO EPAILEA

2005-02-25

HILEKOESALDIA

"Lurjabeoi banan-banan deitu behar ziguten Aizkorriko parkearen plana denok adostutakoa izateko"

JESUS OSINAGA / OROKO BIZILAGUNA

2005-02-18

HILEKODATUA

1.861

LAGUNEK EMAN ZUTEN BOTOA EUROPAKO GALDEKETAN

Europako Itunaren gaineko galdeketa 1.861 herritarrek bozkatu zuten: 991k ezetz, 832k baietz eta 38k zuri. /2005-02-25



Tranbiaren proiektua jarri zuten ikusgai alegazioak aurkezteko

Alvaro Amann sailburua bera etorri zen Eusko Jaurlaritzaren proiektua aurkeztera. Haren arbera, Bergara eta Aretxabaleta elkartuko ditu tranbiak hasierako fasean. Arrasatetik etorri eta Otalora kaletik Durana, Mitarte eta Araba ibilbidea zeharkatzea proposatzen zuen. Durana kaleko bizilagunak, baina, ez zeuden ados eta alegazio asko aurkeztu zizkioten proiektuari. /2005-02-18

ZUTOINAK JARRI ZITUZTEN ZEBRABIDEETAN

↑ Zebrabideetan automobilak aparkatuta uzteko ohitura kentzeko, zutoinak jarri zituen Udalak. /2005-02-18

ETXAFUEGOA JARRI ETA IGOGAILUA APURTU ZUTEN

↓ Zapatu gau batean etxafuegoa leherrarazi zuten atarte bateko igogailuan eta erabat apurtuta utzi zuten. /2005-02-11

AIPAGARRI



SEBASTIAN ROLDAN
Skate irakaslea



JOAQUIN LIZARRALDE
Erretiratua



FELIX RECIO
UDAKo entrenatzailea

Skate ikastaroa eman zuen kirol etxean. Igerilekuko sorroslea izan arren skatea du gustuko eta gurpildun ohol gainean zela ibili erakutsi zuen. /2005-02-04

Lehenengo saria jaso zuen Aratusteetako moztarro lehiaketan. 82 urte dituen Joaquin faraoi jantzi zen eta inguruan, lobek osatutako gorrea eraman zuen. /2005-02-18

Preferenteko futbol taldearen ardura hartu zuen Sorraluzeko entrenatzaileak. Neka Galanen orde jarri zuen UDAKo zuzendaritza batzordeak. /2005-02-25

oinéz

podologia klinika

Done Larrea Etxeberrria

943 79 16 45

belorrieta 10, behea. ARETXABALETA

**Donek Gabon
zoriontsuak
opa dizkizue!**



GUUREA

TABERNA

Urte berri on!

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK

ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK



Gabon zoriontsuak
igaro!

Iparragirre kalea 4 ARETXABALETA Tel.: 943 53 31 86



Zorionak eta
urte berri on!

TABERNA-BERRI



J A T E T X E A

Durana 26 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 67



Aretxabaletako
Udala

*Aretxabaletako Udalak herritarroi
gabon zoriontsuak opa
dotzue eta urte berri zoriontsuena*



MARTXOA



"Borondatezko lana gero eta zailagoa da, baina gero denok hartzen dugu pena"

ARRATE ARKAUX / LANGILEA

2005-03-04



"Ondo portatzen da jendea; ez dute jakiten zela lagundu, baina esanda lortzen dute"

JON ESCOBALÉS / GUTXITU FISIKOA

2005-03-18

HILEKOESALDIA

"Ilargia izaten dut kontuan eguraldi iragarpenak egiteko, eta animalien jarrera ere bai"

B. PAGOAGA / EGURALDI IRAGARLEA


2005-03-18

HILEKODATUA

9.308

EURO TSUNAMIAK KALTETUTAKOEI LAGUNTZEKO

Tsunamiak kaltetutako herriei laguntzeko 7.889,69 euro eman zituen Udalak; herritarrek, ostera, 1.418,69 euro. /2005-03-04



Autobideko lanak segitzeko batzordea

Eibar-Gasteiz autobideko lanei jarraipena egiteko batzordea sortzea erabaki zuen udalbatzarrek martxoaren 14an egindako osoko bilkuran. Helburua zen ahalik eta kalte txikien eragitea lanek. Hori horrela, behin betiko proiektua onartu aurretik beharrezko alegazioak landu eta Bidegiri aurkeztea onartu zuten. Batzorde irekia izatea proposatu zuten, baina gutxienez ondorengoak egongo ziren: udal talde bakoitzeko ordezkari bana, Aretxako ordezkaria, lurjabeen ordezkaria eta interes sozialeko taldeen ordezkaria. / 2005-03-18

AIPAGARRI



KEPA URRA
Euskal presoak

Martxoaren 5ean bukatu zuen Kepa Urrea preso politikoak Curtisko kartzelan egindako itxialdia. Oinarriko eskubideak zein politikoak aldarrikatzeko egin zituzten itxialdiak ibarreko presoek. /2005-03-04



LEIRE LARDIZABAL
Korrika antolatzailea

Martxoaren 16an pasatu zen guretik Korrika, eta Loramendi EEK izan zuen herriko antolaketaren ardura. Korrika Txikia egin zuten arratsaldean ikasleek, eta 22:45ean heldu zen Korrika. /2005-03-11



JOSE ANJEL ANTIXIA
Ingurumen zinegotzia

Tokiko Agenda 21 hasi zen lantzen herritarrekin Udala. Herriko diagnostikoa egin zuten lehengo, ekintza plana egiteko gero. Foroa sortu zuten herritarren partaidetza bultzatzeko. /2005-03-18


Mobiliario ARENZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

- Altzariak
- Diseinua
- Apainketa



Urte berri on guztioi!



APIRILA



"Eta zergatik ez Hirugarren Munduko Aita Santua? 117 kardinalek erabakiko dute"

DAMASO ZUAZUA / KARMELDARRA

2005-04-15



"Madrili aurre egiteko indar kopururik handiena batzea izan behar da objektiboa"

EDORTA MENDIETA / EA-KO KIDEA

2005-04-15



Oinezkoendako pasabidea zubipetik

Aretxabaletako saihesbidearen iparraldeko serreran, hau da, Arrasatetik datorren erre-pidea Aretxabaletan sartzen den tokian, zubi azpiko pasabidea egitea erabaki zuen Foru Aldundiak. 2003an LKS enpresak egindako proiektua ikusgai jarri zuten apirilean.

Deba ibaia pasatzen den zubiaren azpian egitea pasabidea proposatzen zuen proiektuak. Hala, ibilbidearen bi ertzetan dauden bidegorriekin egingo zuen bat: Arrasatekoarekin eta Aretxabaletakoarekin. Hiru metro zabal eta 320 metro luze dituen pasabidea proposatu zuen LKS, eta gehienez ere %6ko malda izango zuen. Gainera, argiteria zerbitzua jarriko zutela esaten zuen proiektuak, bidegorrian dagoen antzera, eta pasabidea egiteko Deba ibaia- ren zati bat eskuinaldera bide- ratuko zuten. /2005-04-29

HILEKO ESALDIA

"Tranbiaren ibilbidea ibaiaren beste aldera aldatzeko eskatu egin diogu Jaurlaritzari"

ARRITXU OLIDEN / ALKATEA

2005-04-22

HILEKODATUA

1.553

BOTO JASO ZITUEN EAJ-K LEGEBILTZARRERAKO

EHAK izan zen hurrengoa, 909 botoekin, eta PSE-EE gero, 534rekin. 288 jaso zituen Aralarrek, 266 PPK eta 196 Ezker Batuak. /2005-04-22

ESPALOIETAKO JAITSIERAK EGOKITZEN

↑ Gutxitu fisikoen herria arazo barik zeharkatu ahal izateko espaloietako jaitsierak egokitzen hasi zen Udala. /2005-04-08

ITOGINAK KIROL ETXEAN

↓ Euri asko egiterakoan itoginak sortzen ziren kirol etxean eta kantxa oso egoera txarrean gelditzen zen. /2005-04-15

AIPAGARRI



KEPA AZKUE
UDako jokalaria

UDako preferenteko taldean 10 urtetik gora egin zituzten Erik Gartziak eta Kepa Azkuek. Horregatik urrezko intsigniak ezarri zizkien zuzendaritzak. /2005-04-08



PEDRO MARI ZUBIZARRETA
Basotxoko presidentea

Basotxo Erretiratuen Elkartearen presidentea izendatu zuten. Andoni Antxiak idazkari ardurak hartu zituen eta Antonio Diezek diruzain ardurak. /2005-04-15



JESUS MARI OLAIZOLA
Idazlea

Mitologian oinarritutako Literatura Topaketak egin zituzten Kurtzebarri eskolan. Jesus Mari Olaizola Txiliku idazlearen sekretuak ezagutu zituzten. /2005-04-29

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari auzunea 3
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 29 26



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

**Jai
zoriontsuak
eta urte
berri on!**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Zorionak eta
urte berri on!

2005-2006 ikasturtea

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4
20550 **Aretxabaleta**
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10
20540 **Eskoriatza**
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Bulego ordutegia
Goizean: 09:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-19:00

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu



UDAL
EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

IOSU

harategia taberna

*Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak*

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Javik eta Juanek Gabon zoriontsuak opa dizkizue!



Fino

**Gizonezkoen
ile apaindegia**

**Javik Gabon
zoriontsuak opa
dizkizue!**

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886



Hiru helburu:

Bakea eraiki, demokrazian sakondu
eta presoak etxeratu

Autodeterminazioa gauzatu

Ezker abertzalea berritu

Eskaintza bat:

Elkarlana.



“hator

hator

mutil

etxera...”



aretxabaletako

aralar

MAIATZA



"Aretxabaletako berba asko jaso ditugu Orotariko Euskal Hiztegian"

ANE LOIDI / HIZTEGIGILEA

2005-05-06



"Astakeria da entzutea egunean 6.000 langile lan istripuan hiltzen direla"

AITOR AGIRIANO / LANGILEA

2005-05-06

HILEKOESALDIA

"Euskararen normalizazioa lortu gura dugu eta gazteengan eragitea ezinbestekoa da"

LARRAITZ IÑURRATEGI / LORAMENDI EE

2005-05-27

HILEKODATUA

26

MILA EURO HERRIKO KOMERTZIOAK BULTZATZEKO

Herriko komertzioen gaineko azterketa sakona egin eta bizi-berritzeko asmoarekin enpresa bat hartu zuen Udalak. /2005-05-20



Kultura etxea, gaztelekua, liburutegia eta musika eskola, onartuta

Kultura etxe eta zine areto zaharra zeuden eraikina bota eta berria egitea onartu zuen udalbatzarak. 2.847 metro koadro eta bost solairu izango ditu eraikin berriak: sotoan gaztelekua; beheko solairuan gaztelekuaren beste gela bat eta 96 jarlekuko aretoa; lehenengoan, liburutegia; bigarrenean, kultur etxea eta hirugarrenean, musika eskola. 3.700.000 euroko aurrekontua zuen. /2005-05-13

EGUN PASA BIKAINA OTALA ZELAIN

Animaliekin jokoak, bertsolariak, sagardoa, paellak, taillerak... Egun pasa bikaina egin zuten Ojala Zelain. /2005-05-20


ZUHAITZAK APURTU ZITUZTEN BEHIN ETA BERRIZ

Behin eta berriz agertu dira aurten zuhaitzak apurtuta: Lausitta kalean, industrialde inguruan eta trenbidean. /2002-05-27

AIPAGARRI



AITOR IRURE
Entrenatzailea



GOIO ARANA
Diseinatzailea



IBON ANTERO
Hiruatzeko kidea

UDAKo alebinen taldeak denboraldi bikaina egin eta Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuen. Santi Morales eta Aitor Irure zituzten entrenatzaile. /2005-05-06

Aretxabaletako Udalaren irudi korporatiboa egin zuen Arteman agentziako diseinatzaile Goio. Lehengo irudiari itxura modernoa eman zion. /2005-05-13

Ekudorko Rukullakta herriko proiektua bukatu zuen Hiruatzek. Ibon Antero kideak oraindik bertan jarraitu zuen kooperatiben kontuak erakusten. /2005-05-20

Angelines autozerbitzuak

Gabon zoriontsuak opa dizkizue

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42 • ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA Tel: 943 79 01 28

EKAINA



"Bostetik aurrera ez ditugu larrialdiak hartzen medikua egon arren"

GABRIEL ELORRIAGA / MEDIKUA

2005-06-17



"Txakurren jabeei dituzten betebeharrak gogorraziz errespeturako deia da"

F. BELTRAN DE HEREDIA / ZINEGOTZIA

2005-06-24

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

"Sormenaz hitz egiten du Kilometroakeko kantuak, nortasunaz eta unibertsaltasunaz"

JON SARASUA / IRAKASLEA

2005-06-10

90

EGUN TORTURAREN AURKAKO NEURRIAK HARTZEKO

Kepa Urrak eginiko salaketa onartu eta neurriak hartzeko eskatu zion Espainiako Estatuari Nazio Batuen Erakundeak. /2005-06-10



Euskara Biziberritzeko Plana jarri zuen abian Udalak eragileekin

Datozen lau urteotarako plana jarri zuten abian ekainean. Helburu nagusi bi zituela aurkeztu zuten: eragileek elkarlanean jardutea eta Udalaren hizkuntza politika bideratzea. Horretarako hainbat eragilek egin zuten lan urte eta erdian; tartean, Loramendi Euskara Elkarte, Udal Euskaltegia eta ikastetxeak. Helburuak zehaztutakoan jarraipena egitea iritzi zioten eragileek. /2005-06-24


TXAPELKETA BI IRABAZI ZITUZTEN INFANTILEK

↑ Mirandako eta Gasteizko futbol txapelketak jokatu zituzten UDAko infantilek, eta biak irabazi. /2005-06-24

LUCIO GARAİK ZARATA HANDIA ATERATZEN ZUEN

↓ Iralabarri plazako bizilagunak kezu ziren Lucio Garai lan-tegiak zarata handia ateratzen zuelako gauetan. /2005-06-24

AIPAGARRI



IÑAKI ANTIGUEDAD
EHUko irakaslea



ANJEL BARANDIARAN
Abesbatzako zuzendaria



HECTOR PRIETO
Bocciako jokalaria

Aste Berdea antolatuz Udalak; tartean Iñaki Antiguedad etorri zen jasagarritasunaren gainean berba egitera. Umeek ere egin zituzten jolas eta tailerrak. /2005-06-03

Aretxabaleta Abesbatzak 25 urte bete ditu aurten. Ospakizunak ekainean hasi zituzten bazkaria eginda, eta urtean hainbat ekitaldi egin zituzten. /2005-06-10

Espainiako Boccia Txapelketan seigarren postua lortu zuen. Valentzian jokatu zuten eta 100 jokalaritik gora elkar-tu ziren. Pozik itzuli zen Hector. /2005-06-10

NURR GORTINAK

Loramendi 8
Tel.: 943 53 26 53
ARETXABALETA

Gabon zoriontsuak igaro!


Gortinak
eta estoreak

Edredoak

Funda nordikoak

Izarak

Toallak



ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta

943-790151 608-772867 679-455764

Urte Berriaren Sarreran
CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO
LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE

JAI ZORIONTSUAK

ETA URTE BERRI ON!

UZTAILA



"Euskaraz izan daitezen guztiak gurako genuke, baina DVD gutxi daude"

ANABEL DIEZ / KULTURA TEKNIKARIA
2005-07-08



"Hezetasuna da arazoa Leixargaraten, eta barruko egurra pipiak jota zegoen"

IÑAKI SAN MIGEL / MURRUKIXO ME
2005-07-15

HILEKOESALDIA

"Anfiteatro txikia egin gura dugu gure zelaian eta herritar guztiendako egongo da zabalik"

LEIRE LARDIZABAL / LORAMENDI EE
2005-07-01

HILEKODATUA

205

UME IBILI ZIREN UDALEKU IREKINETAN UZTAILEAN

Hiru astean ibili ziren 205 ume udaleku irekietan. Ekintza ugari antolatu zizkien Kultura Sailak: San Fermin eguna... /2005-07-22



Udalerriko izenak jasotzeko mapa

Udalerriko toponimia izen guztiak jasotzen dituen lehen mapa aurkeztu zuen Udalak. Ikermak enpresak egin zuen Udaleko Hirigintza eta Euskaraz Sailekin elkarlanean.

Mapa 1/10.000 eskalan egin zuten, toponimia azterketa sakona egin ostean. Lehenengo artxiboetako dokumentuak begiratu zituzten, eta 5.000 erreferentzia inguru aurkitu. Gero ahozko erabilera aztertu zuten eta 606 toponimo jaso. Azkenik idazteko forma normalduak proposatu zizkieten Euskaltzaindiari. /2005-07-15

AIPAGARRI



YERA SANCHEZ
Marrazkilaria

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatutako Sexmetraia lehiaketan Sexologia Euskaraz saria eskuratu zuen. Marrazki bizidunekin egindako film laburra aurkeztu zuen 23 urteko neskak. /2005-07-08



ERRASTI ANAIK
Pilotariak

Ibon eta Unai Errasti anaiek Debarroko Pilota Txapelketako zazpigarren finala jokatu zuten, eta bosgarren txapela eskuratu. Eskoriatzako Errarte eta Iñurragiri irabazi zieten, 22-14. /2005-07-15



CECILIA OBONO
E. Gineako bizilaguna

Ekuatore Ginean Hiruatx elkarteak abian jarriko zuen proiektuaren arduraduna zen Cecilia. Oilaskoak zela hazi ikastera etorri zen Euskal Herrira, gero herrikideei erakusteko. /2005-07-22

Karlos



Harategia

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
ARETXABALETA

Jon Diaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABALETA

Karlos eta Jonen Gabon zorientsuak opa dizkizute!

ABUZZTUA



"Aldundiaren oniritziaren zain gaude kultur etxea botatzen hasteko"

ARRITXU OLIDEN / ALKATEA

2005-08-29



"Iazko larritasunik ez genuke pasatu gura hastera goazen denboraldian"

JOKIN ANTIXIA / UDA-KO PRESIDENTEA

2005-08-29

HILEKOESALDIA

"Aretxa plataformak bi urte daramatza udaletxetik kanpo. Dimisioak orain!"

JOSU ATXAGA / ARETXAKO KIDEA

2005-08-14

HILEKODATUA

57.162

EUROKO AURREKONTUA IZAN ZUTEN ANDRAMAIXEK

Andramaixetako gasturik handiena pilota partiduek izan zuten, 8.000 euro, eta suzko erruberek gero, 3.400 euro. /2005-08-15



Ibai osteko plan partzialari ezetza

Aretxabaleta 2b sektoreko, hau da, ibaiaren beste aldeko plan partzialaren behin betiko onespina etetea erabaki zuen Diputatuen Kontseiluak. Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak egin zuen planaren aurkako txostena, eta horregatik eten zuen onespina Aldundiak.

Aurreikusitako 428 etxebizitzak egiteko Bruesa enpresa sustatzaileak eta Udalak eskatutako aldaketak egin zituzten proiektuan eta errekurtsioa aurkeztu zuten ondoren Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusian. 2005-08-02

AIPAGARRI



KARMELO OLABE
Abesbatzako kidea

Aretxabaleta Abesbatzak eman zien hasiera Andramaixei 25. urteurrena betetzen zutelako. Karmelo Olabek agurra egin zuen eta Xabier Irurek etxafuegoa bota zuen udaletxeko balkoitik. /2005-08-15



ARANTXA JAKA
Agustindar moja

Ehungarren urteurreneko ospakizunak egin ditu aurten agustindar elkarteak maiatzean hasita. Ekainean gotzaina etorri zen meza esatera eta Andramaixetan Udalak omenaldia egin zuen. /2005-05-20



IBAI ZANGITU
Gazte Ekimeneko kidea

Gazte Ekimenak antolatu zituen Andramaixetako txosnaguneko ekitaldiak eta koadrilen eguneko jokoak. Makarroi jana, lasterketak, play-back saioak eta beste asko egin zituzten. /2005-08-15



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Zorionak eta urte berri on!

IRAILA



"Pazientzia eta laguntza eskatzen diegu herritarrei Kilometroak egunean"

MARTIN GARAI / UDALTZAIN-BURUA
2005-09-23



"12 eta 17 tartea adin tarte zaila da; nerabeek sarri ez dute jakiten zer egin"

MAIDER ETXANIZ / GAZTERIA TEKNIKARIA
2005-09-30

HILEKOESALDIA

"Aretxabaletan bertan pilotariak egonda horien aldeko apustua egin beharko lukete"

ERRASTI ANAIAK / PILOTARIAK
2005-09-23

HILEKODATUA

200

UME ELKARTU ZIREN HAUR DANTZARIEN EGUNEAN

Bergarako, Antzuolako, Oñatiko eta Aretxabaletako talde bana eta Arrasateko bi elkartu ziren herrian; ia 200 ume. /2005-09-10

PARROKIA

100 urte bete dituen parrokiako organoa konpontzen hasi ziren

Aurten bete ditu 100 urte parrokiako organoak. Ferdinand Price frantziarrak egindako bitxi interesgarria izanik konpontzea erabaki zuten. Azpeitiko enpresa bati eman zioten ardura eta 40 egunean lana bukatzeko konpromisoa hartu zuten. Santa Zezilia egunean inauguratu zuten. /2005-09-20



Herritarrak protagonista San Migeletan

UDAKo eta Realeko jokalariek beterean partidua jokatu zuten, eta Bixente eta Rafa Etxeandiak, Jabier Etxebarria *Fitok* eta Iñaki Antxiak intsigniak jaso zituzten. Aretxabaleta Abesbatzak, oster, *Katuska* zarzuela eskaini zien herritarrei. /2005-09-23

ERREPIDEAK

Lurren desjabetzeak egin zituzten autobidea egiten hasteko

Eskoriatza eta Arrasate arteko autobidearen tartea onartu zuen Aldundiak -nahiz eta 56 alegazio aurkeztu- eta lurren desjabetzeak egiten hasi. 50 lagun baino gehiago hurreratu ziren udaletxera desjabetzeok sinatzera. Jabeen dirutan ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Aldundiak. /2005-09-23

KURTZEBARRI EGUNA: HAIZE HOTZA ETA GIRO BEROA

↑ Euririk ez zuen egin eta jende mordotxo hurreratu zen Kurtzebarri meza entzun eta txorizoa jatera. /2005-09-10

APURKETAK ETA LAPURRETA INSTITUTUAN

↓ Oporretatik bueltan apurketak aurkitu zituzten Aretxabaleta institutuan; materiala eraman ere egin zuten. /2005-09-08

AIPAGARRI




BIXEN CALZON
Kirol jardueren irakaslea

Kirol zerbitzuek, Bixen Calzon irakaslea buru, jarduera berriak eskaini zituzten ikasturte hasieran; tartean, tonifikazioa eta bizkarra lantzeko gimnasia. /2005-09-08



ZUHAITZ ERRASTI
Euskal preso

Uztailaren 28an atxilotu zuten Zuhaitz, Frantzian, eta abuztuaren 15ean gose greba hasi zuen. 25 egun gose greban egin ostean irailaren 9an utzi zuten. /2005-09-16



IGOR ARENAZA
Preferenteko jokalaria

Eibar, Barakaldo, Merida, Murtzia eta beste hainbat taldeetan ibili ostean, etxera itzuli eta UDAKo preferenteko taldean hasi zuen denboraldia. /2005-09-16

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

Zorionak eta urte berri on!

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187

MARIA JESUS
ARGAZKILARIA

Herriko Plaza 10 (Aretxabaleta)
943-771255 656-732463

EZTEIAK, JAUNARTZEAK, MODAZKO "BOOK"-AK,
ESTUDIOKO ARGAZKIAK, ERREBELATUAK, MARKOAK...
DENA ARGAZKI PROFESIONALEAN

**JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!**

WWW.MJARGAZKI.COM

URRIA



"Zaborraren igoera Sasieta zabortegirako garraio kostuengatik da"

J. A. MTEZ. DE AGIRRE / UDAL DIRUZAINA

2005-10-14



"Aurkarien partidak daude Interneten, eragin handia izan du globalizazioak"

FRAN MIGUEL / XAKE JOKALARIA

2005-10-14

HILEKOESALDIA

"Ez du balio etorkinak hona datozenean kexatzea; beren herrien garapenean lagundu behar zaie"

LORE ABARIK / INFORMATIKARIA

2005-10-14

HILEKODATUA

76

ZENTIMO GEHIAGO BALIOKO DU ZABORRAK HILERO

Udal tasen igoera onartu zuten 2006rako. Zaborrak %17,62ko igoera izango du, hau da, 76 zentimo gehiago hilero. /2005-10-14



Kilometroak jaira hurreratutakoek euripean pasatu zuten eguna

Kilometroak 2005 ospatu zuten Leintz bailaran urriaren 2an, *Plazara* leloarekin. 8.100 metro izan zituen ibilbidearen zati garrantzitsuenak Aretxabaletatik igaro zen. Eguraldi benetan narrasa egin zuen eta Arizmendi ikastolak gura baino jende gutxiago hurreratu zen. Hala ere, boluntario eta langileek izugarritzko lana egin zuten ekitaldi guztiak behar bezala egin zitezela. /2005-10-02

HERRIKO ARTISTAK HIRUATXEKO PROIEKTUAREKIN

↑ Ekuatore Ginean abian jarritako proiektua aurkezteko herriko hainbat artista elkartu eta jaialdia egin zuten. /2005-10-21

ARKARAZOKO ERREPIDEA KONPONTZEN HASI BARIK

↓ Uztailean eman zion Udalak lanok egiteko ardura Amenabar enpresari, eta urri bukaeran hasi barik zeuden. /2005-10-28

AIPAGARRI



ITZIAR ETA NEREA
Gaztelekuko hezitzaileak

Gaztelekua inauguratu zuten hilaren 7an 12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako. Asteburu guztietan egiten dituzte ekintzak. Gabonetan, esaterako, Aste Gaztea. /2005-10-07



JESUS MARI HERRASTI
Patxaran egilea

IX. Gastronomia eta Folklore jaiarekin batera antolatutako XI. patxaran lehiaketa irabazi zuen. Bigarren aldiz aurkeztu zen, eta bietan irabazi. /2005-10-21



OIER SARASUA
Musikaria

Saria jaso zuen Sitgesko Nazioarteko Zinema Jaialdian. Lehengusuak egindako *14 apostolu* dokumentala musika hornitu zuen, eta saria jaso. /2005-10-21


Martini

erloju-denda

- Argazkien grabaketak ordenagailuz
- Erlojuen marka hoberenak:
Lotus, Festina, Viceroy, Sandoz, Time-Force.

Zorionak guztioi!

Mitarte 16 • Tel.: 943 79 01 72 • ARETXABALETA



Olentzero,
Gabon zahar gauda,
Bizar Zuri,
urte berria,
erregeak...
guk ere egun seinalatu
hauek zuekin ospatu
nahi ditugu.



Aretxabaletako
Eusko Alkartasuna

AZAROA



"Etzez etzeko zerbitzuaren arautegia aldatuko dute, eta Udalak kudeatuko du"

B. ARENAZA / GIZARTE-LAGUNTZAILEA
2005-11-25



"Ondo pasatzea dugu helburu eta horretarako guztiok jokatuko dugu"

M. ANTIXIA / ARETO FUTBOL JOKALARIA
2005-11-25

HILEKOESALDIA

"UDAko jokalaria dezente lesioekin dabilta eta zelaiaren egoerak zerikusi handia dauka"


AITOR IRURE / ENTRENATZAILEA
2005-11-11

HILEKODATUA

60

ETXEBIZITZA ZEUDEN HUTSIK HERRIAN

Ondo zehaztea zaila izan arren Udalak errolda eta gutxieneko ur kontsumoa hartu zituen oinarri etxeok zenbatzeko . /2005-11-11



Urkulu txukundu eta biziberritzeko nahia

Ekainean hasi zen Foru Aldundia urtegi inguruko bazterrak garbitu eta bidea asfaltatzen. Urri inguruan bukatu zituzten 600 euroko aurrekontua izan zuten lanok, eta eserlekuak eta gimnasia egiteko guneak jarri zituzten. Hori egindakoan, azaroan, udaltzainak hasi ziren automobilen joan-etorriak zaintzen eta abenduaren 1a ezkerro Goroeta auzo pareko bidegurutzean zutoinak daude.

Udalak, berriz, Urkulu ingurua biziberritzeko asmoa agertu zuen. Naturgintza fundazioarekin berba egin eta lau ildoko proiektua egin zuten: ur bazterrak txukuntzea; Urkulu eta Arantzazu arteko erromes bidea garatzea; pinuen ordeztako zuhaitzak landatzea; eta, azkenik, paisaia zaintzeko beharrezko baliabideez hornitzea baserritarrak. /2005-11-01

SANTA ZEZILIA EGUNA OSPATZEKO EKINTZAK

Abesbatzak mezetan abestu zuen berritutako organoarekin eta musika eskolako irakasleek kalejira egin zuten. /2005-11-25

ARRATOI ASKO AGERTU ZIREN IBAIAN


Arratoiak agertu ziren Deba ibaian, asko agertu ere, eta pozoi poltsak bota zituzten akabatu guran. /2005-11-11

AIPAGARRI



ARRITXU OLIDEN
Alkatea

Bizigune programa sinatu zuen Udalak Javier Madrazorekin. Hutsik dauden etxebizitzak alokairuan ematea adostu zuten Suradesaren bitartez. /2005-11-11



IGOR BASTARDO
Bake epailea

Lau urtean behin aukeratzen dute bake epailea, eta azken lau urteotan egindako lana jarraitzeko Igor Bastardo proposatu zuen udalbatzararak. /2005-11-18



IÑAKI SAN MIGUEL
Murruxikoko presidentea

Mendi Astea egin zuen Murruxikoko MEK: mendi irteera, babarrun jana eta hainbat ikusentzunezko emanaldi. Argazki lehiaketa ere antolatutako egutegia egiteko. /2005-11-27

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14




Zorionak guztioi!



Mitartegarai
Baseri turismoa eta taberna

Zorionak denoi!



Areantza auzoa • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 17 51

ABENDUA



"Jende gutxiago joan da Durangoko azokara, eta arduratuta daude"

IRATI PAGOAGA / IKASLEA

2005-12-16



"San Martin kofradia 1855ean sortu zuten; geroago batu zen San Joserekin"

ALBERTO TROJAOLA / KOFRADIA

2005-12-12

HILEKOESALDIA

"Elkartzen garenok elkartuta ere II. Gazte Eguna giro onean ospatzea dugu helburu"

BEÑAT ZAMALLOA / GAZTE EKIMENA

2005-12-16

HILEKODATUA

4.377

BAZKIDE DITU SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAK

Zendutako bazkideez arduratzen da kofradia hainbat zerbitzu eskainiz. Herrian bazkide gehien dituen elkarte da. /2005-12-08

KONTSUMITZAILEAK

Kontsumitzaileendako udaletxean zegoen bulegoa itxi egin zuten

Debagoieneko bulego bakarra zen eta Martin Garai udaltzain-buruak zeukan haren ardura. Baina gero eta lan gehiago ematen zion eta Udalak ixtea erabaki zuen. 1983an zabaldu zuten eta azken urtean 130 erreklamazio inguru argitu zituen; informazio eskaerak osterara, askoz gehiago izan ziren. /2005-12-23



1915ean jaiotako bazkideei omenaldia

Basotxo Erretiratuen Elkarteak omenaldia egin zien 1915ean jaiotako bazkideei. 10 lagun izan ziren, zazpi emakume eta hiru gizon; Luzio Oteitzak omenaldi egunean bertan bete zituen 90 urte. Pedro Zubizarreta presidentek egin zien ongietorria. /2005-12-13

POXPOLIN PARK HOBETZEKO AHALEGINA

↑ Herritarren keak kontuan hartuta, parkea kirol etxean antolatu beharrean kulturako lokaletan egin zuten. /2005-12-02

HERRIKO HAINBAT PILOTARI, ESKAS


↓ Herri arteko Pilota Txapelketa eskasa egin zuten hainbat bikotek eta mailari eusteko partiduak jokatu zituzten. /2005-12-02

LIBURUTEGIA

Izenpe txartel digitalak tramitatzen hasi ziren Udal Liburutegian

Txartel digitalak egiten hasi ziren Udal Liburutegian, Jaurlaritzak eta Aldundiek bultzatutako Izenpe ekimenaren bitartez. Internetz kontsultak egiteko aukera ematen du txartelak. Momentuz liburutegietan bakarrik erabil daiteke, baina aurrerago administrazio lanak egiteko balioko du. /2005-12-23

AIPAGARRI




JUANJO OROBENGOA
Akordeoi Orkestra

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak lehenengo saria jaso zuen Arrasateko Akordeoi Lehiaketan. Saio bikaina egin zuten Juanjoren zuzendaritzapean. /2005-12-06



IÑAKI AIZPURU
Aldundiko parkeen burua

Urkuluren gaineko jardunaldiak antolatu zituen Udalak bertako proiektuen berri emateko. Parke naturalen buruak Aizkorri-Aratz izan zuen berbagai. /2005-12-13




RITXI BRIÑAS
Udaltzaina

Bosgarren udaltzaina hartu zuen Udalak gero eta lan gehiago zutelako: animalien ordenantza, Urkulu... Lehen egondako Ritxik gaintitu zituen azterketak. /2005-12-16

Aretxabaletako



Gabon zoriontsuak
eta
urte berri on guztioi



ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA

Gabon zoriontsuak igaro!



Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a / 237 zenbakia

2005

urteari begiratu

ESKORIATZA eta LEINTZ GATZAGA

boa navidade

merry christmas


joyeux Noël

zorionak

frohes weihnachtsfest

feliz navidad

bon natal

FAGOR 

Fagor Ederlan






Maulanda merenderoa

Zorionak eta urte berri on!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

**Gabon jairik zoriontsuenak
opa dizkizue Lenizek!**
Urte berri on!

LENIZ
ESKORIATZA

 **SUZUKI**

KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA Tel.: 943 71 50 61 / Faxa: 943 71 31 45
Posta-e: rleniz@euskalnet.net

URTARRILA OTSAILA



"Goiko mamuaren intolerantziaren aurpegia ezabatzeko jaia izan zen San Kanuto. Ea borroa bera ezabatzen dugun".

J. J. ARRIETA
TXISTULARIA
2005-01-24



"Emakumeak eta gizonak ez gara berdinak, berez desberdinak garelako"

LEONOR HERRERO
AMUSKA EMAKUME TALDEA
2005-02-18



"Jendea harritu egiten da lizentziatura edukita, baserrian nabilelako"

PEDRO LASAGABASTER
BASERRITARRA
2005-02-21

OGASUNA

6.670.000 euroko udal aurrekontua onartu zuten

Urteko lehenengo osoko bilkuran udal aurrekontuak onartu zituzten. Ezker Batuak eta Elizateek hainbat alegazio egin zizkioten aurrekontuen zirriborroari, baina azkenean aho batez onartu zuen udalbatzarrek 2005eko aurrekontua. 6.670.000 euroko aurrekontua, hain zuzen ere.

Udalerrian egin beharreko inbertsio handienak honako hauek ziren: alde batetik, Santa

Ana berriro urbanizatzeko lanetara milioi bat euro bideratu zituzten; bestetik, Dorleta auzoa birgaitu gura zuten eta hango hainbat lokal egokitu.

Ezker Batuak eta Elizateek hainbat partida handitu gura zituzten. Horrez gain, udalbatzak erabaki zuen Tsunamiak Asian kaltetutakoei laguntza ematea. Biztanle bakoitzeko 25 zentimo bidali zituzten. /2005-01-21

ETXEBIZITZAK

Udalak eta Jaurlaritzak Bizigune programa sinatu

Programa horren hitzarmena sinatzen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzen Saileko ardudun Javier Madrazo izan zen. Programa horren bidez saiatu ziren herrian hutsik zeuden etxebizitzetara irteera ematen, eta aldi berean, etxebizitza merkeak alokatu gura zituzten herritarrei aukerak ematen.

Lehenik eta behin, Udala eta Jaurlaritza hasi ziren herrian etxebizitza hutsak

zituztenei informazioa ematen. Horrekin batera, herrian hutsik zeuden etxebizitzetara zerrenda egin behar izan zuten.

Bi erakundeetako ordezkariak azaldu zieten etxeen jabe- ei Jaurlaritza arduratzen dela hileko alokairuaren ordainketa ziurtatzen, eta etxebizitzak egokitzeko hainbat laguntza eskuragarri dituztela. Horrez gain, interesatuen zerrenda ere egiten hasi ziren. /2005-02-25

ABELTZAINNTZA


Zubillagako hiltegiaren gaineko jardunaldiak

Zubillagako hiltegiaren eta Deba-goieneko harakin eta ganaduzaleen etorkizuna izeneko jardunaldiak egin zituzten Ibarraundi jauregian. Besteak beste, hiltegiako gerenteak, Mankomunitateko Landa Garapen elkar-teko arduradunak, EHNEko ordezkariak eta beste esku hartu zuten. /2005-02-04

AZPIEGITURAK

Kirodegiko oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak

Intxaurtxuetako kiroldegian hainbat lan egin zituzten. Besteak beste, oztopo arkitektonikoen gaineko lege berriak hala eskatuta, aldagelak egokitu zituzten. Horren helburua zen elbarriek ere instalakuntza horiek erabili ahal izatea. Bestalde, uraren hodiak ere aldatu zituzten, infekzioak saihesteko. /2005-01-14



Aldagelak egokitu zituzten.



Herrian hutsik zeuden etxebizitzetara zerrenda egin zuen Udalak.

OSASUNGINTZA

Inauguratu zuten 408 metro koadroko osasun etxea

Gorosarri plazan jarri zuten osasun etxe berria. 442.500 euroko inbertsioa egin zuen Osakidetza zerbitzua egokitu eta hornitzeko. Santa Ana auzoan zegoen osasun etxea baino handiagoa da, eta zerbitzu hobea emateko pentsatuta zegoen. Azpiegitura eta hornikuntza aldetik ere alde handia dago. /2005-02-04

Ze barri?

Otalaria, 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: zebarri@goiena.com



ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Iker Barandiaran
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate
LEGE-GORDAILUA
SS200/99
ISSN
1134-2609
TIRADA
4.100 ale

ZEBARRI
Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eskoriatzako Udala



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia

Larmanta

Lentzeria umeen moda eta opariak

Josunek eta Maitek Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Tel.: 943 71 53 87 • Gaztainadui • 21 ESKORATZA



MARTXOA



"Berez estudio txiki bat daukadan arren, gurago dut paisaiak margotzera kanpora jotzea: urtegiaren inguruetara..."

TOMAS RUBIO
MARGOLARIA
2005-03-11

LITERATURA

HUHEZIKO Literatura Astean bidaiak izan ziren berbagai

Udaleko eta HUHEZIKO ardura-dunek eman zioten hasiera HUHEZIKOren VII. Literatura Asteari. Edizio horretako gai nagusia *Literatura eta bidaiak* izan zen, eta martxoaren 14tik 18ra bitartean egin zuten.

Aurkezpenean honako lagunek esku hartu zuten: Hezkuntza lerroko zuzendari Matilde Sainzek, Eskoriatzako Udaleko Kultura zinegotzi Maider Otamendik

eta HUHEZIKO hizkuntza irakasle eta Literatura Astearen antolatzaille Arantza Ozaetak, hain zuzen ere.

Uneoro ateak zabalik izan zituzten jardunaldietan. Lehenengo lau egunetan sei hizlarik egin zituzten aurkezpenak. Azkeneko egunean, berriz, fakultateko ikasleek gidatu zuten saioa. Jende askok esku hartu zuten jardunaldietan. /2005-03-11

KULTURA ETA ONDAREA

Ibarraundi museoaren logotipoa eta izena aukeratuta

Arrasatear batek egin zuen logotipoa eta *Ibarraundi museo* izan zen museoarendako aukeratutako izena. Guztira zazpi lan aurkeztu zituzten lehiaketara, eta azkenean Arrasateko Gorka Zubizarretak irabazi zuen 300 euroko saria. Udalaren asmoa zen logotipoa lehenbailehen aditzera ematea. /2005-03-18

INGURUMENA

Udalak alegazioak jarri zizkion Aizkorri-Aratz parke naturalari

Udalak esku hartzearen arrazoi nagusia izan zen herriari dagozkion lur asko egitasmoaren barruan sartu zituztela. Hain zuzen ere, parkearen 19.000 hektareetatik 1.500 Eskoriatzakoak izango ziren: 1.300 hektarea pribatu eta 200 publiko. Udala Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain gelditu zen. /2005-03-18

APIRILA



"Jokalariek lan handia egin dute; ez dugu taktika berezirik erabili"

ANTONIO REGAÑO
ARETO FUTBOL TALDEA
2005-04-22



"Etorkinak erakarri gura baditugu, atseginak izan behar dugu"

JULEN AREXOLALEIBA
HUHEZIKO IRAKASLEA
2002-04-29

ONDAREA ETA TURISMOA

Ibarraundi, bisitariendako gune eta informazio puntua

Udalak erabaki zuen bisitariendako harrera hobeto antolatu gura zuela. Urtero ikasle ugari etortzen dira herrira, eta horiez gain, bestelako bisitariak ere erakarri gura zituen. Hori guztia hobeto antolatzeko eta bisitariari zer ikus zezaketen azaltzeko Ibarraundi jauregia informazio puntua bilakatu zuten.

Udalaren asmoa zen udalerrriaren gaineko ikus-entzu-

nezko bat egitea eta hainbat liburuxka kaleratzea. Kanpotik etorritakoei Ibarraundi erakustez gain, ikus-entzunezkoa proiektatu, liburuxkak eskaini eta herrian ikustekoak azaldu, hain zuzen ere.

Ibarraundi jauregiaren eraberritze lanak bukatu eta inaugurazio ofiziala San Pedro jaian aurretik egin gura zuten. Horrez gain, jauregia museoa ere bazen. /2005-04-08



Ibarraundi jauregiari hainbat erabilpen ematea erabaki zuten.

MUSIKA

Paco Ibañez poeta eta musikariak kontzertua egin zuen

Euskal Herriarekin odolezko eta sentimenduzko lotura berezia duen Paco Ibañez poeta eta musikari valentziarrak kontzertua egin zuen kiroldegian.

Kontzertuak arrakasta handia izan zuen, eta Euskal Herri osoko ehunka lagun joan ziren emanaldia ikustera. Gogoz aritu zen Ibañez. /2005-04-08

OSPAKIZUNAK

Herri bazkari barik bada ere, Aitzorrotz Eguna arrakastatsua

Oso berezia da Aitzorrotz Eguna Urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa da. 09:00etan txistulariek diana jo zuten, eta 09:30ean hainbat lagun elkartu ziren herriko plazan. 11:30ean meza esan orduko Aitzorrotz inguruak bete ta zeuden. Giroa paregabea: trikitixa, bertsolariak eta beste izan ziren. /2005-04-29

Urte berri on zoriontsua izan dezazuela!



ixkur

ILE APAINDEGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31

Hemen

GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

web gunea: www.hemen-garbiketak.com

Urte berri on!

MAIATZA



"Lehenengo kamiseta alkateari eman diogu, iaz moduan. Kantxa hobetzea derrigorrezkoa ikusten dugu"

MANOLO MUÑOZ
KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA
2005-05-23

ELIZATEAK

Elizateetako auzo bideen inbentarioa egin zuten

Baserrri auzoetan tarteka bideen eta lurzoruen jabetzaren gaineko arazoak izaten dira. Halako arazoak saihesteko eta beste batzuk sor ez daitezten Udalak erabaki zuen udalerriko bide publikoak katalogatzeko lana egitea. Horretarako, nekazaritzan aditu den Tomas Madinabeitia-ekin harremanetan jarri ziren. Madinabeitiak denbora luzea behar izan zuen lan hori egiteko.

Elizateetako bideak hainbat sailetan banatu zituen: herri errepideak (Aldundiaren kargu daudenak), udal bide publikoak (horien artean, zoladuradunak eta zoladura barikoak bereiztu zituen) eta bide pribatuak (baserrien sarbide direnak). Trenbideak eta basoetako pista nagusiak ere jaso zituzten egindako lanean. Baserritarrek alegazioak aurkeztu zituzten. /2002-05-20

KIROLA

Areto futbol taldeari merezitako omenaldia egin zion Udalak

Eskoriatzako areto futbol taldea euskal ligara igo ostean, bigarren gelditu eta lehen nazionalera egin zuen jauzi. Horregatik guztiagatik Udalak omenaldia egin zion areto futbol taldeari. Jokalari bakoitzari plaka bana banatu zioten, eta horren ostean luntxa izan zuten udal ordezkari, jokalarik eta bestelakoek. /2005-05-23



Oso pozik bukatu zuten denboraldia.

EKAINA



"Herritarrek pozik ikustea da hau guztiau antolatzearen onena"

ROSA ELIZBURU
AZOKAREN ANTOLATZAILEA
2005-06-03

INGURUMENA

Ikasleek Agenda 21 betetzeko eskatu zuten

Luis Ezeiza eta Almengo LHko hiru zikloek eta DBHko 1. go zikloek Agenda 21 landu zuten eskoletan. Udalerrriaren egoera aztertu ondoren, osoko bilkura berezia egin zuten eta udal agintariei hainbat eskaera egin zizkieten.

Udalak erabaki zuen garrantzitsua zela ikasleen ekarpena eta eskaerak jasotzea. Herriko ikastetxeetako 40 ume eta gaztetxok osoko bilkuren

aretoa bete egin zuten eskaerak egiteko.

Lehenik eta behin, ikasleek eskatu zuten Epeleko araztegia ahalik eta lasterren egiteko. Horrez gain, ikasleek eskatu zuten Arbiñoste, Makinetxe, Antontxu eta Uretseko iturburuak konpontzeko. Ura aztertu zuten, ibaian garbiketa gehiago egiteko eskatu zuten. Udalbatzak lanean jarriko zela esan zien. /2005-06-17



Ikasleek hainbat eskaera egin zizkieten politikariei.



"Nire umetako San Pedrotan inspiratu naiz horma-irudia egiteko"

MIGUEL A. CASADO
JALETAKO HORMA-IRUDIAREN EGILEA
2005-06-17

EUSKARA

100 elkarrizketetatik 33 egin zituzten euskaraz herrian

Soziolinguistika Klusterra enpresak euskararen erabilera aztertu zuen herrian. Jasotako emaitzen arabera, euskararen erabilera handituz zihoan, eta umeen presentziak eragin handia zeukan horretan. San Pedro auzoan batu zituzten emaitza txarrenak.


Kluster enpresak biztanleen %51 neurtu zuen. /2005-06-03

KIROLA

Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiaren bosgarren edizioa egin zuten

Orain dela 10 urte hasi ziren antolatzen, eta herriko eta inguruetako mendizaleendako hitzordu garrantzitsua da. Bi urtetik behin egiten dute, hildako mendizaleak gogoan izateko.

07:00etan abiatu ziren herriko plazatik Apotzagarantz. Guztira, 40 kilometrotako ibilaldia egin zuten. /2005-06-10



Zorionak eta urte berri on!

FAGOR

ETXETRESNA ELEKTRIKO
TXIKIEN NEGOZIOA


Aingeru Guarda ibilbidea z/g
Tel.: 943 03 91 00 / 943 71 54 52 (SAT)

UZTAILA



"Baserrian bizi naiz, baina ez dut inoiz baserriko lanik egiten"

DEIANE ARRIETA
KAZETARIA
2005-07-11



"Taldea txantxan hasi genuen, baina dagoeneko diskoa kaleratu dugu"

IÑAKI KORTAZAR
LUKAS PREST MUSIKA TALDEA
2005-07-04

ZIRKULAZIOA

Zirkulazioa arautzeko ordenantza gogorragoa

Uztailaren 4an hasi zen Udala herrian zirkulazioa arautzeko ordenantza berria ezartzen. Horren arabera, ezin zen kale nagusienetan autoa gelditu, eta udaltzainek jarritako isunak Eusko Jaurlaritzako Zirkulazio Sailak bideratuko zituen.

Udalak aspalditik zeukan zirkulazioaren araudia gogortzeko asmoa. Udaltzainak jartzen hasi ziren isunak ordura artekoak baino garestiagoak

ziren, eta Eusko Jaurlaritzak arduratuko zen horien tramitazioa egiteaz.

Horrekin batera, Udalak erabaki zuen ezingo zela honako kaleetan gelditu: Aranburuzabala, Arana eta Gaztainadui kaleetan, Aingeru ibilbidean eta Intxaurtxueta kaleko lehenengo sei zenbakietan. Horren helburua zen herritar batzuen jarrera desegokiak saihestea. /2005-07-01



Zirkulazioarekin hainbat gorabehera izaten dira herrian.

TRIALA

Apotzagako 4x4 trialak arrakasta handia izan zuen

Apotzagako zabortegi ohian 32 gidari batu ziren zazpi zonatan banatutako zirkuituan esku hartzeko asmotan. Txapelketa bi egunetan egin zuten, eta zapatu gauez ere ibili ziren hainbat proba egiten. Are gehiago, euriak eragindako putzuek lurra lokaztu eta ikusgarriago egin zuten txapelketa. /2005-07-11

AUTOBIDEA

Zabortegiari beste kokapen bat emateko eskatu zuen Udalak

Desjabetze prozesuaz gain, zabortegiaren gainean ere arazoak ikusi zituen Udalak autobidearen auzian. Udalak jakin zuenez, zabortegi bat eraikitzea proposatzen zuen Aldundiak. Hori zela-eta, ingurumenari egin diezaiokkeen kaltea aztertzeko ikerketa abiarazi eta beste leku baten jarritzea eskatu zuten. /2005-07-22

ABUZTUA



"Alderdiak ez dira ados jartzen. Bitartean, gizartean aldaketa nabariak eman dira, eta ikuspegi berriak eskatzen dituzte"

MIKEL USABIAGA
HUHEZIKO IRAKASLEA
2005-08-04

ETXEBIZITZA

Etxe tasatuak eraikitzea erabaki zuen Udalak

Udalaren jabetzako orubeetan etxebizitza tasatuen eraikuntza eta kudeaketa egiteko lehiaketa deitu zuen Udalak. Interes berezia zuen Udalak etxebizitzaren arazoan, eta benetako beharrak jakiteko, inkesta bat bultzatu zuen.

Aldaketa garrantzitsuak aditzera eman zituzten Santa Marina auzoan. Han 145 etxebizitza eraiki gura zituzten eta horrek

urbanizazio lan itzela ekarriko zuen; erreka guztia bistaratu gura zuten; hiltegi zaharra eta hainbat etxebizitza eraitsi gura zituzten; eta Zubizarreta eta Olabarri lantegiak botako zituzten, bestek beste.

Eraiki beharreko 145 etxebizitzetatik Udalak 28 tasatuak egin gura zituen. Udalak etxebizitza bakoitza 180.000 eurotan saldu gura zuen. /2005-08-11

AISIALDIA

175 ume eta gaztetxo ibili ziren udalekueetan buru-belarri

Pena handiarekin hartu zuten udalekuen bukaera herriko hainbat ume eta gaztetxok. Hilabete osoan hainbat eta hainbat ekimen egin izan zituzten, eta ez zuten aspertzeko astirik izan.

Iaz ez zuten eskolako lokalik erabili. Horregatik, ekintza gehienak kalean egin zituzten, euren gozamenerako. /2005-07-22



Kalean barrena gustura ibili ziren.

Urte berri on guztioi!



Sukaldeko tresneria • Lapiko lasterrak • Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540

IRAILA



"Berbetan egiten ditugun akatsak zuzentzeko tresna egin dugu"

KARMELE AGIRREGABIRIA
EUSKALTEGIKO IRAKASLEA
2005-09-19



"600 garaikur baino gehiago ditut ziklo-kros eta plater tiroketakoak"

JESUS FDEZ. DE ARROIABE 'MATXAIN'
PLATER TIRATZAILEA
2005-09-23

ETXEBIZITZAK

Gaztea, langilea, eta familia osatzeko etxea lortu guran

Halakoa da etxebizitza publiko-rako eskaera egin zuen eskoriatzarraren profila. Udalak inkestak bat egin zuen etxebizitza eskuratu gura zuten herritarren artean, eta horiek datuak jaso zituen.

Herrian egingo dituzten etxebizitza publikoen eskaintza antolatzeko jaso zituen datuok Udalak. Besteak beste, inkestan batutako emaitzen arabera, etxebizitza berriarengatik 156.000 euro

ordainduko lukete interesatuek. Horrez gain, etxebizitza berria lehen eskukoa izatea eta jabetzan hartzea da galdetutako gehienen nahia.

Etxea eskatzeko arrazoiei dagokienez, gurasoen etxea utzi edo familia osatzeko utzi gura dute gaur egun bizi diren etxea. Hain zuzen ere, inkestatuen %68 lau pertsonako familiatan bizi ziren galdetegia erantzun zute-nean. /2005-09-16

ASIALDIA

Aisialdia antolatzeko, zerbitzu gida banatu zuten etxez etxe

Udalak *Eskoriatzako Aisialdiaren Zerbitzu Gida* kaleratu zuen. Liburuxka horretan laburbildu zuten aisialdia antolatzeko herrian dauden ekipamendu, elkarte, ikastaro eta bestelakoen eskaintza. 2.000 ale kaleratu eta etxez etxe banatu zituzten. Udaleko hainbat sailek izan zuten ardura hori. /2005-09-08

SASKIBALOIA

Saskibaloiko Eskoriatza Hiria II. Trofeoa

Aurreko urtean lortutako arrakasta errepikatu guran, Eskoriatza Hiria II. Trofeoa antolatu zuen Eskoriatza Kirol Elkarteak Udalaren laguntzarekin. LEB ligako lehen eta bigarren mailetakoko taldeak lehiatu ziren: Donostiako Bruesa GBC eta Palentziako Hormigones Saldaña, hain zuzen ere. /2005-09-02

AUTOBIDEA

Autobideen lanen ondorioz, dardarak eta pitzadurak

Bizpahiru astetan dardara handiak igarri zituzten hainbat herritarrek. Besteak beste, herriko plazan. Horrez gain, autobideko lanen ondoren dagoen etxe baten pitzadurak sortu ziren. Autobideko lanetan egindako leherketak izan ziren arazo horien iturri. /2005-09-23

ERRETIRATUAK

Udalak 210 erretiratu omendu zituen pilotalekuan

Azken urteotako ohiturari jarraituta, Udalak omenaldi berezia egin zien herriko erretiratuak. Pilotalekuan bazkari erraldoia antolatu zuen, eta 210 lagun batu ziren mahaiaren bueltan. Nagusienei, Rosalio Blanco eta Antonio Izagirrerri, aipamen berezia egin zieten. /2005-09-30

URRIA



"Proba egitearren, 'Gran Hermano' saioan izena emango nuke, baina lagunek ez didate uzten"

ANA NEVADO
'BASETXEA' SAIKO LEHIAKIDEA
2005-10-07

HISTORIA ETA ONDAREA

Argazkien eta testigantzen bidez, historia jasotzen

Udaleko Kultura Sailak ia 500 argazki batuta zituen identifikatu eta katalogatu barik. Horri irtenbidea emateko, beka bat atera zuten. Leire Parra arrasatearra ibili zen argazkiak katalogatzen, informazioa batzen eta adinduen testigantzak jasotzen.

Parrak hainbat herritarrei laguntza eskatu zien, irudien gaineko informazioa batu ahal izateko. Bide hori erabilita, hainbat

lagunek argazki gehiago eraman zituzten, eta guztira 1.087 batu zituen. Argazki bakoitzarekin fitxa bat bete zuten, eta datu basea osatu. Irudiak gaika banatu zituen, eta 37 esparru bereiztu zituen.

Horrekin batera, Parrak 80 urte edo gehiago dituztenen testigantzak jasotzeko hainbat elkarriketa egin zituen, eta informazio asko batu. /2005-10-07

PRESOAK

Marixol Iparragirre gose eta egarri greban Marsellan

Preso eskoriatzarra Tolosako (Frantzia) presondegitik Marsellara eraman zuten, haren bikotekide Mikel Albisurekin batera. Presondegien departamenduak ez zion familiari aditzera eman.

Presondegian bizi dituen baldintza gogorak salatzeke, Iparragirrek gose eta egarri greba egin zuen. /2005-10-21



Marixol Iparragirre preso dago Frantzian.



ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA


ONDO PASA GABONETAN!




AKEITA taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

TEL.: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • ESKORIATZA



AZAROA



"Txistuaren soinua kalean entzuten ez bada, hizkuntzekin gertatzen den moduan, galdu egiten da"

MARIO PADILLA
TXISTULARIA
2005-11-11

AZPIEGITURAK

Tranbiaren proiektua erakusgai alegazioak aurkezteko

Hilaren 17an argitaratu zuten tranbiaren behin-behineko proiektua EAeko aldizkari ofizialean. Hortik aurrera, herritarrek bi hilabete izango dituzte alegazioak aurkezteko.

Jaurlaritzak aditzera eman zuenez, tranbiak lau geltoki izango zituen herri barruan. Horrez gain, kale baten autoen trafikoa moztu eta oinezkoendako eta tranbiarendako utziko zuten.

Aretxabaletatik datorren bidean, Eskoriatzako sarbidea eraldatzeko asmoa dute eta han biribilgunea jarri. Aretxabaletatik Eskoriatzarako noranzkoan eskuinaldean joango litzateke tranbia eta bi errei izango litzuzke.

Herri barruan lau geltoki izango litzuzke: kiroldegi parean, Gorosarri plaza parean, Santa Anan eta TESA enpresaren parean, hain zuzen ere. /2005-11-11

IKUSKIZUNAK

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunaren estreinaldia

Azkeneko urteotan moduan, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizunaren estreinaldia egin zuten herrian. Oraingoan *Maite zaitut* izan zen eskainitako lana. Kiroldegia lepo bete zuten, jakina, eta umeez izugarri gozatu zuten. Ikuskizun horrekin ijitoenganako aurrekariak aldatu gura zituzten. /2005-11-25

AUTOBIDEA

Udalak eta Bidegik hainbat konpromiso zehaztu zituzten

Udalak eta Bidegik autobidearen gaineko lehenengo batzarra egin zuten Donostian. Erakunde bakoitzak egin beharreko hainbat etxeko-lan zehaztu zituzten. Horien artean, erabaki zuten eguenero autobidearen lanetako segurtasun arduradunak herritarrei arreta egingo ziela udaletxean. /2005-11-25

ABENDUA



"Kristala eta argazkia erabili ditut, eta horiei diseinu grafikoa erantsi"

NAIARA ERRASTI
DISEINATZAILEA
2005-02-06



"Christmas Digitalak webgunean eskuragarri egotea oso polita da"

IÑIGO URRUTIA
DISEINATZAILEA
2002-12-16

GAZTEAK

12 eta 16 urte artekoendako gaztelekua zabaldu zuten

2004an Udala gazteria politika aztertzen hasi zen. Udalak egin-dako azterketaren arabera, 12 eta 16 urte bitarteko 140 nerabe bizi ziren herrian, 68 neska eta 72 mutil. Udalaren esanetan, gazte talde horrek aste barruan ez dauka aisialdirako denbora nahikorik. Asteburuetan, berriz, denbora libre luzeen dutenean, alokatutako lokal pribatuetan, leku ezkutueta edo tabernetan batzen dira.

Hortaz, Udaleko Gazteria Sailak erabaki zuen adin tarte horri zerbitzua emateko egubakoitzetik domekara bitartean gaztelekua zabalik izatea.

Hilaren 26an inauguratu zuten, eta pilotalekuko lokale-tan kokatu zuten. Behin zerbitzua ematen hasita, Gabonetako oporretarako egitarau boro-bila antolatu zuten. Txatxili-purdi arduratu zen zeregin horretaz. /2005-12-02



Udalaren helburua zen adin tarte horrendako eskaintza bermatzea.

MUSIKA

Benito Lertxundiren kontzertua atzeratu egin behar izan zuten

Benito Lertxundik abenduaren 2an kiroldegian eman beharreko kontzertua bertan behera gelditu zen, Orioko musikaria gaixorik zegoelako.

Udalak beste data bat hitzartu zuen musikariarekin: 2006ko urtarrilaren 13a, hain zuzen ere. Dirua berreskuratzeko aukera eman zuten. /2005-12-02

MERKATARITZA

Gabonetako kanpaina abiarazi zuten herriko merkatariek

Herriko merkatariek eta zerbitzuek Gabonetako kanpaina abiarazi zuten abenduan. Bezeroen artean hainbat txartel banatu zituzten, eta asmoa zen Errege Egunaren bezperan zozketa egitea. Irabazleak herrian gastatu beharreko 1.500 euro eta afaria jasoko zituen. Aspaldian, halako ekintzak egin dituzte. /2005-12-16

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA

Zorionak denoi!



Esko Sport


Zorionak eta urte berri on!

Intxaurtxueta 5 20540

Telefonoa :943 71 52 96

Eskoriatza

Zorionak eta urte berri on!



Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a / 34. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorala Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05



Elurak izotzari egin zion lekua, eta arriskutsuagoa bilakatu zen errepidean ibiltzea.

URTARRILA

Elurraren ondorioz, arazoak herrian

Negu gogorra izan da aurtengoa, eta gatzagarrek ondo igarri dute hori. Urtarrileko azkeneko astean erruz bota zuen elurra. Arla-

bango eta Leintz Gatzagako errepideak itxita, Udalak horrelako egoeretan erabiltzen duen traktorea atera zuen. Horrekin bate-

ra, urtarrilaren 25ean argi barik geratu ziren, hurrengo egunera arte. 38 zentimetroko elur lodiera izan zen herrian. /2005-02-28

URTARRILA

Saharako bizilagunei laguntzeko janaria batzen ibili ziren

Debagoien osoan ibili ziren Gatzagago errefuxiatuen alde janaria batzen, baita Gatzagan ere. Sorginak emakume taldea ibili zen lan hori egiten. Besteak beste, 90 kilo azukre, ehun lata atun eta konpresa mordo bat zituzten Gatzagan. /2005-01-21

MARTXOA

Dorletako Ama Txirrindulari Taldearen aurkezpena

Martxoaren 5ean aurkeztu zuten joan berri den denboraldiko Dorletako Ama Txirrindulari Taldea. Alebin, infantil eta kadete mailetako ziklistekin batera Sumofic taldeko ziklistak ere aurkeztu zituzten, tartean Ander Nafarrete eta Antton Anduaga. Mendiko bizikletak ere bere tartea izango zuela argitu zuten. /2005-03-15

OTSAILA

Abstentzio handia izan zen Europako erreferendumean

Ez zen jende askorik animatu Europako Konstituzioari buruzko erreferendumean parte hartzera. Izan ere, datuen arabera gatzagarren %68,6k ez zuten botoa eman. Gatzagan 11 baiezko, 53 ezezko eta lau zuri zenbaitu zituzten. /2005-02-21

APIRILA

Datorren urtean Euskal Bizikleta Leintz Gatzagan egingo dute

Hori iragarri zuen Dorletako Ama Taldeko Alberto Altubek. Baina hori iragarri eta hilabete batzuetara atzera egin zuen egitasmoak, besteak beste, ETBk ez zuelako proba hori eskainiko. Bistan da UCI Pro Tour egitasmoak kalte egin diela lasterketa txikiei. Hala ere, badirudi arazoak konpondu egin direla. /2005-04-15

FRIXI

Eraikuntzak

*Zorionak
eta
urte berri on!*

**Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak**

Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22



Gatzagako Sorginak taldekoak Zamoran, autobusen aldeko aldarrikapena egiteko mozorrotuta.

MAIATZA

Autobusen gaineko aldarrikapena Zamoratik

Gatzagako Sorginak taldeko 17 lagun Zamorara joan ziren maiatzean, asteburu-pasa. Zapatu goizean Zamorako bazterrak ezagu-

tzen ibili ziren eta Torora joan ziren bazkaltzera. Domekan bertan ere Torora itzuli ziren, upelategi batera. Baina aldarrikapen bat egite-

ko ere aprobetxatu zuten bidaia: prentsurrekoa eman zuten Zamoran, herrian autobus zerbitzurik ez daukatela salatzeke. /2005-05-07

MAIATZA

GURELekoek Baltzolako kobazuloetara egin zuten bidaia

Gurasoen Elkarteko 18 lagun Baltzolako kobazuloetan izan ziren, Dimatik gertu.

Egun osoa igarotzeko asmoarekin gerturatu zen lagun koadrila polita Baltzolarra, baina ekaitzaren ondorioz, eguerdirako etxera itzuli ziren. GURELekoek Bermeora egin zuten hurrengo bidaia. /2005-05-20

MAIATZA

Kutzazaina jarri zuten, baina ezin da dirurik atera

Bazirudien gatzagarrek beste zerbitzu bat izango zutela eskura. Hau da, herritarrek dirua atera ahal izango zutela Kutzak udaletxeko hormetako batean jarritako kutxazainari esker.

Kutzazainarendako konexio arazoak izan zituzten, eta hilabeteak daramatza kutxazainak zerbitzua eskaini barik. /2005-05-13

EKAINA

Gatzagako Udalak KZgunea lekuz aldatzea erabaki zuen

Garro jauregian zegoen KZgunea lekuz aldatzea erabaki zuen Udalak, eta ordura arte Sormen enpresa egon zen lokalera eramatea. Lan horiek egiteko 420 euroko aurrekontua izan zuten; KZguneok lau ordenagailu jarri zituzten, eta Udalekoek bi. /2005-06-03

EKAINA


Arlabango mendateko maldak konpontzea onartu zuten

Diputatuen Kontseiluak onartu zuten Arlabango mendateko hainbat gunetan dauden malda edo ezpondak konpontzea. Lan horiek autobidea amaitutakoan egingo dituzte, eta 3.687.773 milioiko aurrekontua izango dute horretarako. /2005-06-03

UZTAILA

Gaztetxoendako ekintzaz betetako udalekuak

Gatzagako gaztetxoek ez zuten aspertzeko astirik izan uztaileko lehenengo hamabostaldian. Herrian hainbat jolas, San Ferminetako jaiak, Otxandioko igerrilekuetara, zaldietan ibiltzera edota Gaztainuzketako etxetxetara irteerak... Dorletako kanpaldiarekin amaitu zituzten udalekuak. /2005-07-15




Zaldi gainean ibili ziren udalekuetan.

UZTAILA

"Gainontzeko herriek dituzten zerbitzuak gura ditugu Gatzagan"

Diputazioak eta Mankomunitateak Gatzaga baztertuta dutelako haserre, gatzagarrek batzarra egin zuten uztail hasieran.

Ordutik hona hainbat batzar egin dituzte, garraiobide publikoaren arazoari aurre nola egin erabakitzeke. Gaur da eguna arazo hori konpondu barik dutela, autobus barik daudela. /2005-07-08



Zirkulazio handia, baina autobusik ez.

ABUZTUA

217.850 euroko aurrekontuak lanak egiteko

Aikia eraikuntza enpresak 217.850 euroko aurrekontua izango du herriko azpiegiturak berrietzeko egingo dituzten obretarako. Hala, urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartzeko lanak egingo dituzte; horrekin batera ur-hargune berriak jarriko dituzte, eta errepedea zabaldu. /2005-09-02



leniz sa fundizioak


Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

Gabon zoriontsu eta alaiak izan ditzazuela!

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 7
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua
•
Gazte menua
•
Karta
•
Bazkariak eramateko
Urte berri on!



IRAILA

Buruhausteren bat edo beste sortu zuen euriak jaietan

Inork ez zuen aurtengo Andra-maixetan kale egin gura, ezta euriak ere. Hala, eguraldiaren eraginez prestatuta zeuden hainbat ekintza bertan behera utzi behar izan zituzten, edota lekuz aldatu. Eta Karra Elexalderen zine emanaldia da adibide argiena. Horrelakoek ilundu egin zuten jaia, baina izan ziren arrakasta handia izan zuten ekintzak; herri afaria, adibidez.

Aurten, herri bazkaria alde batera utzi eta jende mordoak elkar-tu zen irailaren 10eko iluntzean, afaltzeko gertu. Guztira 138 lagunek afaldu zuten pilotalekuan. Eta, izan zuen arrakasta ikusita, Udaleko ordezkariak baieztatu zuten datorren urtean ere afaria egingo dutela, aurreikuspen guztiak bete zituzten-eta. /2005-09-12



Zinemaskopea pilotaleku barrura sartu zuten, filma eman ahal izateko.

IRAILA

“Uci Pro Tourkoek kontuan hartu behar dituzte proba txikiak”

Zalantza bat baino gehiago izan eta gero, azkenean Gatzagara ekarriko dute Euskal Bizikleta.

Dorletako Amako kideek, baina, buruhauste ederrak izan dituzte kontu horrekin. Uci Pro Tourkoek egutegitik kanpo utzi zuten, eta zalantzan egon eta gero, ETBk zuzenean eskainiko du lasterketa. /2005-09-16

IRAILA

“Ez nuke gura lanek hiru edo lau hilabete baino gehiago irautea”

Hori izan zen Iñaki Eguren, Aikia enpresako teknikariak, irailan esan ziguna, baina egin duen eguraldiak ez du batere lagundu. Herriaren goialdean dagoen ur biltegiari hasi zituzten lanok, eta gero hasi ziren goiko errepidea irekitzeko lanetan. Herriko hodi zaharrak aldatzea zen hurrengo pausoa. /2005-09-23

URRIA

Dagoeneko badago pilotaren harrobia lantzeko aukera

Urrian hasi ziren Inazio Beloki-ekin batera hainbat gazte pilotan entrenatzen. Horretarako, Udalarekin berba egin, eta martitzen eta eguenetan euren daukate pilotalekua. Hala, Gatzagan dagoeneko hasi dira pilotaren harrobia lantzen. /2005-10-21

URRIA

152 txirrindulari izan ziren mendiko bizikleta irteeran

Eguraldia lagun, oso arrakastatsua izan zen Gatzagako hirugarren mendiko bizikleta irteera. Lagun mordoak gerturatu zen Gatzagara, eta lasterketa izan ez bazen ere, Josu Irulegik egin zuen 35 kilometroko ibilbidea azkarren. /2005-10-14

AZAROA

Gutxienez, autobusa bi orduan behin Gatzagatik igaro dadila

Hori da Gatzagako garraio komisiokoak Diputazioari egindako azken eskaera, ordu jakin batzuetan Pesako autobusak Gatzagatik igaro daitezela, bai Gasteiz-rako noranzkoan doazenak, eta baita handik datozenak ere. Hori lortuz gero, Eskoriatzako hainbat auzotako biztanleek ere zerbitzua izango lukete. /2005-11-18



Autobus zerbitzurik ez dutela salatzen pankarta, pilotalekuaren horman.

ABENDUA

Gabonetan gura beste ekintza egin dituzte Gatzagan

Gabonetan hainbat ekintza egin dituzte herrian. Gaztetxoek *Olentzero* lana antzestu zuten kultura etxean, eta horrekin batera, Labidean izan da Olentzero, Sahara-koendako jostailuak eta janaria batzen. Horrekin batera, pilotalekuan giro ederra izan da azken egunotan, gazteen eta nagusien pilota txapelketekin. /2005-12-23



Elizaren atarian jarritako jaiotza.

AZKOAGA ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Ondo buka dezazuela
2005. urtea
eta hobeto hasi
urte berria!

Mendraka

Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO



GATZA-GAIN Jatetxea

- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Espezialitateak:
Baserriko oilaskoa
Etxeko txorizoa eta
okela ekologikoa

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA



Ondo igaro Gabonak!

2006 urte gozo-gozoa opa dizuegu!




Okindegia - Gozologia
Aretxabaleta

Okindegia - Gozologia
Aretxabaleta
Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Okindegia - Gozologia
Aretxabaleta

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ

SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3
FAGOR  Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

GRUPO RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 